

Atxutxiamaikako eta<sup>📍</sup>  
Udal ludotekako  
2023ko udaldia

# Informazio orokorra

2-12 URTE BITARTEKO HERRIKO HAURREI  
AISIA HEZITZAILE EUSKALDUNA ESKAINTZEA

## Datak:

1. txanda: ekainak 26-uztailak 7

2. txanda: uztailak 10- 21

Txokoak 1: ekainak 22-23

Txokoak 2: uztailak 24-28


\*Goiz-txoko: 08:00-9:30

\*2 TXANDETAN: Kultur Etxeko Sotoan

\*TXOKOETAN: Merkatu plazako 3. solairuan



# ZEHARLERROAK



# LANDUKO DITUGUN GAIAK

- NATURA
- JOLAS LIBREA
- ZENTZUMENAK
- HAURREN HIRIA
- KOMUNITATEA
- EMOZIOAK/  
AUTOZAINZA



# Adinkako eskaintza

Bost programa:

- APAPA (HH2)
- APARIKETAN (HH3)
- FIRIN FARAN (HH4-HH5)
- ABIXADAN (LH1-3)
- ALDENIK ALDEN (LH4-6)

# APAPA (HH2)

Noemi

747489053



- 09:30-13:00
  - 1.TXANDA AITA AGIRREKO ARKUPEAN
  - 2.TXANDA KULTUR ETXEKO SOTOAN
- SARRERA/IRTEERA malgua (09:30-10:00 eta 12:30-13:00)
- Erritmo lasaian jardungo dugu eta aukera daukagun heinean, kanpo espazioetan jolastuko gara.
- 1. egunean, poltsa batean aldatzeko arropa, pardelak... ekartzea eskatuko dizuegu. Lokalean gordeko dugu txanda amaiera arte.
- Poltsan eta umearen arropan (oinetako, bainujantzi, barruko arropa...) umearen izena jartzea eskertuko dizuegu.

# APARIKETAN (HH3)

Noemi

747489053

- 09:30-13:00 King Kong-ean
- SARRERA/IRTEERA malgua (09:30-10:00 eta 12:30-13:00)  
Urazandiko parkeko eskolan (Txanpiak)
- Erritmo lasaian jardungo dugu eta aukera daukagun heinean,  
kanpo espazioetan jolastuko gara.
- Elgoibarko espazio ezberdinak erabiliko ditugu.
- 1. egunean, poltsa batean aldatzeko arropa, pardelak...  
ekartzera eskatuko dizuegu. Lokalean gordeko dugu txanda  
amaiera arte.
- Poltsan eta umearen arropan (oinetako, bainujantzi, barruko  
arropa...) umearen izena jartzea eskertuko dizuegu.



# FIRIN FARAN (HH4-5)

Miriam eta Ander

747489048

- 09:30-13:00 Parrokiako arkupeetan (Leku Eder aldera).
- Haurren adin zein beharretara egokitzen diren ekintzak gauzatuko ditugu.
- Elgoibarko espazio ezberdinak erabiliko ditugu: Herri Eskola, San Roke, Santa Klara, Skate parkea...





# ABIXADAN (LH 1-3)

Maria eta Naia

656740793

- 09:30-13:00 pista beltzean.
- Ostegunetan egunpasa 17:00ak arte
- Aste tematikoak
  - Futbolaren Astea
  - Bitxo Zientzialariak
  - Moruren Konkista
  - Abixadaneko Jaixak



# Aldenik Alden (LH 4-6)

Ihart

747489055

- GURE OSTEGUN ETA OSTIRALAK

Ekainak 29 eta 30

Hondartzara!

Sallobente Fest

Uztailak 6 eta 7

Hi selfie!

Skate Gaua

Uztailak 13 eta 14

Geocaching

Gau Japoniarra

- EGONALDIA Garaion Sorgingunean

Uztailak 17-21



# OHARRAK



- **Puntualitatea** eskatuko dugu. HHttik aurrera, 15 min tarte izango duzue haurra jaso eta lagatzeko (09:15 eta 13:15).
- Segurtasunagatik, joan aurretik ziurtatu haurra eta hezitzailea agurtu direla.
- Hezitzaileengana **euskaraz zuzentzea** proposatzen dizuegu.
- Umea lasai lagatzeko zailtasunen bat baduzue, koordinatzailearengana jotzea gomendatzen dizuegu.
- HHttik aurrera, motxila ekarri beharko dute hamaiketakoarekin eta urarekin (erdiraino nahiko). (HH2-3koek ez dute motxilarik eta urik ekarri beharko).
- Zuen haurrak laguntza gutxirekin edo autonomiarekin jateko moduko hamaiketako osasuntsua ekartzeko gomendioa egiten dizuegu. Pisu askorik ez duen eta apurtzeko zaila den ontzi batean ekartzea eskatuko dugu, baita umearen izena bertan jartzea ere.
- **Motxila erreparasatu hurrekin.** Horrela jakingo dute zer duten eta non dagoen: jatordu, arropa...

- Oinetako eta arropa erosoak izatea garrantzitsua da (korrika egitekoak eta autonomia emango dietenak: txiza egitko, jarri eta kentzeko...).
- Eguzkitako krema etxean ematea eskertuko dizuegu.
- Ezingo da etxetik ezer ere ekarri, salbuespenak salbuespen.
- Haurra ez bada ondo aurkitzen, deskantsuan lagatzea gomendatzen dizuegu. EZ badugu ondo ikusten deitu egingo dizuegu.
- Haurra ez bada etorriko, abisua pasatzea eskatzen dizuegu; egunean bertan bada ere.

- Informazioa, zuek emandako posta elektronikora bidaliko da, beraz, erne ibili.
- Eskaintza bakoitzeko galdetegi bat pasatu dizuegu umea **zeinek jaso** dezakeen jakin dezagun, mesedez bete!!
- Umearen inguruko oharren bat baduzue (baimenik ez duen pertsona batek jaso behar badu, lehenago jaso behar baduzue...), aurreko egunean abixatu beharko duzue datorren astean bidaliko dizuegun galdetegia baten bitartez.
- Programazioaren inguruko oharren taula jasoko duzue udalekua hasi baino lehen.
- **Proposamen eta ekarpenak** ongi etorriak izango dira udaleku guztian zehar.